

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Ogasunak zuzeneko kudeaketaren bitartez 221 milioi euro gehiago eskuratu ditu 2018an, herritarren onura ekartzeko politiketan erabiltzeko

*Nafarroak hirugarren urtez jarraian gehitu du gastu-sabaia, superabita izan du eta zorraren interesen ordainketa nabarmen murriztu du*

Astelehena, 2018.eko uztailak 30

Ogasun eta Finantza Politikako kontseilari Mikel Aranburuk gaur aurkeztu du zuzentzen duen departamentuaren jarduera-balantzea, eta nabarmendu du Departamentuaren zuzeneko eta aparteko kudeaketak, hots, diru-bilketarako ohiko bideak kontuan hartu gabe, Gobernuari beste 221 milioi euro gehiago izateko aukera eman diola 2018ko aurrekontuan, herritarren onura ekartzeko politiketan erabiltzearen. Horietatik 146 milioi pasa den abenduan Estatuarekin sinaturiko Hitzarmen Ekonomikoaren Ekarpeneren inguruko kalkulu berrienak dira; 68 milioi Ministerioarekin ere adostutako Hidrokarburoen doikuntzen zenbaketa zehatzarenak dira; eta beste 6 milioi zorraren interesaren ordainketatik kentzen dira birfinantzatzeko egindako eragiketei esker.

### Altxortegia eta birfinantzaketa

Gobernu honen hirugarren aurrekontuak onartzearekin, %4 gehitu da gastu-sabaia (%12,48ko igoera 2015. urtearekin alderatuta), eta erdia baino gehiago arlo sozialera bideratu da. Zehazki, osasun, hezkuntza eta eskubide sozialen arloetan, gastu-sabaia %5,19 gehitu da, iazko urtearekin alderatuta.

Aurrekontuen zuzendari nagusiak, Begoña Urrutiak, adierazi duenez, "gainera, gastu arduratsua gehitu da, foru-kutxak oztopatu gabe; izan ere, 2017. urtearen amaiera aldera 631 milioi euroko altxortegia izatera iritsi gara, 2015eko 50 milioi euro pasatxoko altxortegiarekin alderatuta. Nafarroak, gainera, kontuak superabitarekin itxi ditu 10 urtetan lehen aldiz".

Urrutiak azpimarratu du Nafarroako Gobernuaren zor garrantzitsua birfinantzatzeko eragiketen inguruan egindako kudeaketa, Foru Erkidegoa zor horren gainean ordaintzen ari den interesak nabarmen murriztu ahal izan baitira. 2015. urtean, esate baterako, interes horiek ordaintzeko 119 milioi euro sartu ziren aurrekontuan, eta, 2018an, 88 milioira jaitsi ahal izan da, 30 milioi gutxiago. 2018ko aurrekontuetan, iaz baino 6 milioi gutxiago daude zorraren interesak ordaintzeko, eta, beraz, beste politika batzuetarako erabiltzen dira. Guztira, 2016tik itxitako eragiketetan, 141 milioi aurreztuko dira Nafarroarentzat datozen 12 urtetan. Birfinantzatzeko eragiketak egin ahal izan dira Nafarroaren kaudimena optimizatzea lortu

duen kudeaketari esker; azken urte honetan, gainera, maila bat igotzea lortu du kreditu-kalifikazioan, eta A-tik A+-era igaro da ikuspegi positiboarekin.

Urrutiak, orobat, aurtengo beste gertaera bat aipatu du; hala nola, Kontratu Publikoen inguruko FL berria onartzea, horrela, Nafarroako ordenamendu juridikoa Europako zuzentarauetara egokitu baita, eta horren helburua da merkatu lehiakorragoa sustatzeaz gain, ETEen parte-hartzea erraztea, gizarte-politikak, ingurumen-arlokoak, genero-berdintasunarenak eta berrikuntzakoak sustatzeko tresna bezala balio izatearekin batera.

Aurrekontuen zuzendari nagusiak, halaber, adierazi du Ogasun Departamentua irizpide sozialak eta/edo ingurumenekoak sartzen ari zela jada lizitatutako ia kontratu guztietan, eta, horren adibide gisa energia elektrikoaren horniduraren azken lizitazioa aipatu du, derrigorrezkoa egin baita jatorri berriztagarrien ziurtagiria.

### **Diru-bilketa, neurri fiskalak eta gardentasuna**

Ogasunak iazko urtearen amaiera aldera berreskuratu zituen krisi ekonomikoaren aurreko bilketaren zenbatekoak. Aranburu kontseilariak adierazi duen moduan, neurri hori "hiru arrazoiengatik gertatu da: batetik, batik bat, Hitzarmen Ekonomikoaren inguruan lortutako akordio berria, Estatuarekin iazko abenduan sinaturikoa, Nafarroaren errealitatera gehiago egokitutako kontuekin; bestetik, ekonomiaren bide egokia; eta, azkenik, 2015ean onartutako erreforma fiskala, zergak pixkanaka gehitzeko eta 2015ean genuen egoera leheneratzeko".

Hori dela-eta, NZOeko kudeatzaile Luis Esainek azaldu duenez, aurtengo urtearen hasiera aldera erabaki zen enpresei BEZa itzultzeko aukera aurreratzea, epea erdira murriztuaz, eta berdin Sozietateena ere, aurtengo amaiera aldera aurreratuko baita, enpresek likidezia handiagoa izan dezaten eta inbertsioak erraztu daitezten. Era horretan, lehen seihileko bilketak erakusten duenez, enpresek 148 milioiko aparteko likidezia izan dute. "Nafarroak bere enpresei zor zien neurria da", adierazi du Esainek.

Horrez gain, Ogasuneko kudeatzaileak guraso berrientzat onartu berria den laguntza aipatu du, amatasun eta aitatasun prestazioek %25era bitarteko murrizketa sor dezaten PFEZen. Azaldu duen moduan, "aldaketa fiskal honen bitartez, seme-alaba berriak dituzten familiek injekzio ekonomikoa izatea lortu nahi da, berdintasuna ere sustatzeaz gain, amatasun zein aitatasun baimenetan dedukzioa egitea onartu da-eta. Dedukzio horien kostua 7 milioi euro ingurukoa izango dela uste da".

Gardentasunari dagokionean, Luis Esainek bi gertaera nabarmendu ditu azken urtean: alde batetik, Batzorde Koordinatzaileak bosturtekoaren eguneratze-akten Hitzarmen Ekonomikoa argitaratzea historian lehendabiziko aldiz, eta, bestetik, NZOren jardueren urteko memoria egitea eta argitaratzea, Ogasunaren Estatutuetan 99. urteaz geroztik jasotako baldintza, lehen aldiz praktikan jarri dena, herritarrei erakunde autonomoa ezagutzera emateko.

Ogasunaren jardueraren errebasoarekin amaitzeko, Esainek ondorengoa adierazi du: "iruzurraren aurkako borrokan lanean jarraitzen dugu, eta lan horrek bere fruituak eman ditu 2017an aurreko urtean baino %21,5 gehiago berreskuratu baita; eta, ondoren, honela gehitu du: "errenta-aitorpena egiteko programa berria abian jarri dugu, Informazioaren Berehalako Hornidura ezarri dugu edota Ogasunaren bulego berria ireki dugu modu iraunkorren Donezteben, ingurukoei urte osoan zehar zerbitzua emateko".